

JUAN SAN MARTIN HIL DA

83 URTE BETETZEAR | *Idazle eibartarra, gerra osteko euskaltzale belaunaldiko eredu gizona, atzo goizaldean zendu zen, gaixotasun luze baten ondorioz, 83 urte betetzeko bizpahiru aste baino falta ez zitzaizkionean*

Juan San Martinek azken agurra jasoko du gaur arratsaldean Hondarribian

Juan San Martin atzo goizaldean zendu zen, gaixotasun luze baten ondorioz, 83 urte betetzeko bizpahiru aste baino falta ez zitzaizkionean. Datorren ostiralean bertan Eibarko Udalak «seme kuttun» ofizialki izen-

datu behar zuen. San Martinen aldeko hileta-elizkizuna gaur izango da, iluntzeko zazpitan, Hondarribiko Andra Mari Parrokian. Gizon polifazetikorik izan bada, hori San Martin izan da. Izan ere, tornulari izate-

tik Ararteko izatera iritsi zen, kirolari, historialari, poeta, euskaltzain, itzultzaile, etnologo, arte kontuan aditu eta, beharbada oroz gain, euskaltzale eta kultur sustatzaile izateari inoiz uko egin gabe.

GARA

DONOSTIA

Juan San Martin 1922ko ekainaren 23an jaio zen, Eibarko Elgeta kalean. Han egin zituen bizitzaren lehenengo urteak, 1936an gerra piztu zen arte. Orduan, aita, armagintzan ziharduen ezker joeratakoa, Valentziara joan zen Errepublikaren aldeko lana egitera, eta ama eta lau anai-arrebak, berriz, ihesi ibili ziren Bilbon, Santanderren eta Gijonen. Bordelerantz itsasontziz zihoazela, frankistek preso hartu eta Ferrolera eramant zituzten.

Eibarrera bueltan, Juan San Martin tornulari hasi zen lanean egunez, eta gauez, berriz, eskolara joaten zen. Gazte-gaztetatik irakurketa zaletasuna bizi-bizirik izan zuen eta horrek eman zion autodidakta izateko oinarria. Euskaraz alfabetatzeari ere bere kasa ekin zion, soldaduskan zegoela hizkuntzaren kontzientzia hartu ondoren.

Mendizale amorratua ere izan zen: mendian era guztietako praktikak egin zituen, hala nola, mendira joatea, eskia, eskalada eta espeleologia. Garai batez, eskalada eta mendigoizale eskolako irakasle-gidaria izan zen. Aipatzekoa da Bulnesko Naranjo mendia igo zuela hiru bide desberdinetatik, eta baita Pirinioetako zenbait gailurrera igotzeko bide berriak urratzen aitzindari izan zela ere.

Eibarko Kirol Klubean parte hartu zuen. Berton zenbait kargu izan zituen, eta besteak beste, burua izatera heldu zen. Kultura Saila ere sortu zuen, eta horrela, kirol ekintzen osagarri modura, biblioteca, hitzaldiak, ikastaroak eta zenbait erakusketa antolatu zituen.

Izan ere, San Martinek Eibarko Kirol Elkartearen aldizkarian eta "Pirenayca" agerrian argitaratu zituen lehen idazlanak mendiekin-eta zeuden lotuta. Gaztelaniaz hasiera, euskaraz ere bai, gerora.

Imanol Berriatuaren "Anaitasuna" eta Jokin Zaitegiren "Euzko Gogoa" izan ziren kultur gaiei buruzko bere lehen artikuluen plaza 1950eko hamarkadaren hasieran, eta geroztik Euskal Herrian izan diren al-



Gizon polifazetikorik izan bada, hori Juan San Martin izan da.

dizkari gehienetan argitaratu zuen Juan San Martinek. "Egan" aldizkari zuzendari izan zen 1983tik 1989ra. Eta zenbait urtez, Jon Bilbaoren gidaritzapean, Eusko Bibliografia taldeko laguntzaile eta zuzendaritzako kide ere izan zen.

Euskal Herrian barrena asko ibili zen, eta ondorioz, hainbat alorreko gaiekin egin zuen topo, hala nola hizkuntzalaritza, artea, arkeologia eta etnografiarekin. Horrela, historiaurreko zenbait aztarnategi-erronartarren garaikoak-eta- eta

artelan batzuk identifikatu zituen. Aldi berean, zenbait herri-kanta eta eskuz egindako lanen bilketa ere egin zituen.

«Otsalar» poeta

Artikuluak ez ezik, poemak ere plazaratu zituen, batez ere "Euzko Gogoa"n eta Santi Onaindiak zuzentzen zuen "Olerti" aldizkarian. Poesia lanetarako erabili zuen goitizena, "Otsalar", erreferentzia garrantzitsua izan zen 60ko hamarkadako euskal poesiagintzan. 2001ean argitaratu zituen

orduko poema gehienak, "Giro Gori" liburuan bilduta.

Bere lehen liburua Juan Antonio Mogelen bizitzari eta obrari buruzkoa izan zen, 1959an argitaratua, eta gero beste hainbat etorri ziren: umorea, literatura, artea, etnologia, hizkuntza... era guztietako alorrak landu baitzituen.

Euskaltzaindiak 1957an izendatu zuen Juan San Martin euskaltzain urgazle. 1964an, aldiz, euskaltzain oso. Sarrera hitzaldia, "Literatura landuaren sorrerako giroa, Axularren garai-

BIBLIOGRAFIA

San Martinek euskaraz zein gaztelaniaz idatzirik artikulu eta liburu zerrenda izugarri luzea da. Horren zati txiki bat baino ez da honako hau.

1959 • "Juan Antonio Moguel eta Urkitza".

1960 • "Zirikadak", "Eztenkadak".

1968 • "Escritores euskéricos".

1971 • "Euskal artea".

1973 • "Julio Beobide".

1974 • "Literaturaren inguruan".

1977 • "Vocabulario euskaro adicional del padre Esteban de Adoain".

1978 • "Gogoz: gure herriko gauzak".

1979 • "Existe-t-il un art basque?".

1985 • "José Manterola".

1988 • "Los Zuloaga: dinastía de artistas vascos".

1993 • "Antzinako Eibar: etnografía gaiak".

1996 • "Luis Pedro Peña en las investigaciones etnográficas".

1998 • "Hondarribiko Andre Maria Jasokundekoa: historia, arkitektura eta artea".

1998 • "Giro gori".

2001 • "Bitoriano Gandiaga eta Mendata".

Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS